

KAZETARITZA PRAKTIKARAKO SARBIDE PROGRAMA

2008ko DEIALDIA

BERRIA egunkariak "Kazetaritza praktikarako sarbide programa" jarri du martxan, unibertsitate titulua (erdi edo goi mailakoa) duten gazte esperientzia gabeei kazetaritza praktikan lantzeko aukera emateko.

Hau da helburua: lizentziadun berriek kazetaritzako prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzea eta beren karrera profesionala bideratzeko eremu posible gisa ezagutzeko aukera izatea.

2008ko deialdian 8 beka eskaintzen dira. Beketako bat bideo informatiboen arloan aritzeko izango da.

Beka BERRIA egunkariak Andoainen duen egoitza nagusian edo Bilbo, Gasteiz edo Iruñeko ordezkarietzetan beteko da.

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

1.1. Iraupena

Bekaren iraupena 9 hilabetekoa izango da, 2008ko urriaren 1etik 2009ko ekainaren 30era.

Bekaren dedikazioa astean lau egunekoa izango da.

Arrazoia edozein dela ere beka epea beranduago hasten duenak bekaren amaiera datan amaituko du beka epea. Kasu horretan, 1.3. atalean aipaturiko diru laguntzari dagokion zati proportzionala kenduko zaio.

Sailaren eskaerari erantzunez, BERRIAk 9 hilabeteko epea bete arte luzatu ahal izango die beka aurreko atalean aipatutakoei.

1.2. Bekaren luzapena

Sail edo enpresaren eskaerei jarraituz, beka epea gehienez 3 hilabetez luzatu ahal izango da.

Beka luzatzen denean, bekadunak diru laguntzaren zati proportzionala jasotzeko eskubidea izango du.

1.3. Programaren onurak

Bekadun izendatzeak jarraian aipatzen diren onurak ditu:

- Prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzea BERRIA egunkariaren sail edo ordezkarietzeko batean.
- Bederatzi hilabeteko epean 6.255 €-ko diru laguntza jasotzea, hilean 695,00 €.

- BERRIAk istripu eta oinarrizko osasun-laguntza aseguru hitzartzea, beka irauten duen epean, betiere bekadunak arrisku horiek babestuta ez badauzka.

1.4. Bekadunen estatus juridikoa

Beka egokitzen zaienen estatus juridikoa BERRIAren bekadunena izango da; horregatik, prestakuntza epean erakunde horren araubideari jarraituko diote, betiere prestakuntza arduradunaren orientabidea oztopatu gabe. Prestakuntza praktikoa jasotzeak ez du inongo lan harremanik ekarriko bekadunaren eta enpresa edo sailaren artean.

1.5. Bateriaezintasunak

Beka jasotzea bateraezina izango da langabezi laguntza edo beste beka bat jasotzearekin.

2. HAUTAGAI EK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eskainitako praktika egiteko gaitasuna ematen duen goi edo erdi mailako unibertsitate titulu baten jabe izatea.
- Titulua lortu denetik bost urte baino gutxiago izatea.
- Aurretik BERRIAren beste beka bat jaso gabea izatea, edo jasotzeari ukoa eman gabea.
- Epaimahaiak erabaki ahal izango du, baldintzak osorik bete ez arren, merezimendu berezia duten hautagaiak onartzea.

3. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak BERRIAren eskaera orrian (eskuratu www.berria.info helbidean) aurkeztuko dira, gb@berria.info helbidean edo BERRIAren egoitza nagusian (Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain). Eskaerak aurkezteko epea 2008-09-08an amaituko da.

Aurkeztu beharreko agiriak*:

- NAren fotokopia.
- Lizentziadun tituluaren edo eskatu izana egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- CV eguneratua.
- Hizkuntza maila azaltzen duten agiriak.
- Egindako beste ikastaroen agiriak.

* Agiriak hautaprobara deituek soilik aurkeztu behar dituzte.

4. EBALUAZIOA, AUKERAKETA ETA ESLEIPENA

- Ebaluazioa, hautaketa eta beken esleipena BERRIAk izendatutako epaimahaiak egingo du.
- Epaimahaiak eskaera guztien artean lehen aukeraketa egingo du, titulazio, espezialitate eta dagokionean hizkuntza mailaren eta eskaeran aurkeztutako datu akademiko eta curricularren arabera. Aukeratuak proba idatzia eta elkarrizketa egitera deituak izango dira.
- Hautatze prozesuak irauten duen bitartean, eskaeran azaldutakoa baieztatzeko beharrezko ikusten dituen agiriak eskatuko ditu epaimahaiak.
- Aukeraketa amaitzean, titulazio, espezialitate eta dagokionean hizkuntza mailan lortutako puntuazioaren arabera sailkatutako zerrenda emango dio epaimahaiak BERRIari.
- BERRIAk epaimahaiaren proposamenari jarraituz emango ditu bekak, eta jasotzaileari idatziz jakinaraziko dio.

5. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

Hauetako dira bekadunen betebeharrak:

- Beka esleitzean, BERRIAk eskatutako agiriak bete eta bideratzea ezarritako epean barruan.
- Hiru hilean behin eskatutako datu eta edukiekin BERRIari txostena bidaltzea.
- Prestakuntzaren garapenari eragiten dion edozein gorabehera BERRIari jakinaraztea.
- Bekak irauten duen epean prestakuntza egokiro garatzeko behar den arreta eta jarrera izatea.
- Prestakuntzaren jarraipenerako BERRIAk antolatzen dituen bilera eta elkarrizketetara joatea.
- Prestakuntza arduradunak prestakuntza lantzeko ematen dituen orientabideei jarraitzea, egokitu zaion sailaren dinamikan integratuz.

6. EZEZTATZEA ETA UKO EGITEA

Beka ezeztatzearen arrazoia jarraian azaltzen den edozein izan liteke:

- Bekadunak eskaera orrian emandako datuen irregulartasunak.
- Bekadunen betebeharrak ez betetzea.
- Bekadunaren borondatezko uko egitea.

Bekari uko egiteak edo ezeztatzeak bekak ematen dituen eskubide guztiak galtzea ekarriko du, eta, horregatik, BERRIAk, hori gertatu ondoren, ez du inongo kopururik emango eta ezingo zaio aipatutako kontzeptuengatik inongo kopuru proportzionalik erreklamatu.

7. AZKEN XEDAPENAK

Deialdi honen tramitazioan eta beka epean sor litezkeen intzidentziak BERRIAk konponduko ditu, eta horren erabakia ezingo da atzera bota.

Epaimahaiaren eskaerari jarraituz, BERRIAk eman gabe utz dezake beka deialdiaren esleipen osoa edo zati bat.

Bekadunak deialdian jasotakoa ez betetzeak bekaren amaiera automatikoa ekarriko du. BERRIAk beka bertan behera uzteko eskubidea izango du, bekadunaren jokaera edo jarduera BERRIAren irudi edo interesen kontrakoa dela irizten badio.